

2008KO MARTXOAK 26

26 DE MARZO DE 2008

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZOHIZKOA

SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2008KO MARTXOAK 26

DIA: 26 DE MARZO DE 2.008

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Cristina FORCADA UNANUE
Xabier OLAIZOLA ANTIA
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Manuel ZUBIA ARTABE

IDAZKARIA: Miren ETXEZARRETA GARMENDIA
SECRETARIO

Herritarrak agertu dira.

Asiste público.

Alkate jaunak bilera eratutzat
ematen du.

Se da por constituida la
sesión por el Alcalde-Presidente.

1.- HAZIENDA.-

1.1.- 2008KO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.

1.- HACIENDA.-

1.1.- APROBACION, SI PROCEDE, DE LOS PRESUPUESTOS GENERALES DEL 2008.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Eskerrikasko honera etorri zareten denoi.
Gaur ez ohizko Plenoari emango diogu hasiera; nahiko gai eskuartean:
Hazienda, urbanismo eta mozio bat.

Haziendarekin ekiteko, gaur **2008. EKITALDIKO
AURREKONTU OROKORRAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.**
Aurrekontuen inguruan nahiz eta makina bat bilera izan diren, aurrekontu
definitiboa esplikatzeko, Joseba Ogasuneko batzorde buruak esplikatuko
dizkigu hobeto, nola dihoazten aurrekontuak.

JOSEBA JOSU AZPIAZU AKARRAGA JNA: Gutxi gora behera esango
dudana da paperean dagoena. Martxoaren 13an azken borradorea aurkeztu
genuen Hazienda batzordean eta diktamen bat egin zen, aldekoa, EA eta
ANV-ren baietzarekin eta PNV eta Aralarren abstentzioarekin eta gutxi
gora behera hori izango da esplikatuko dudana. Ondo ikusten baldinbada
behintzat, espero dut baietz. (PNV-koak daude okerren, baina bueno).

Udal aurrekontuekin hasiko gara, lehenengo diru-sarrerarekin, hor
ikusten duzute bezala dago konparatiba 2007 eta 2008.

Diru sarrerekin hasita, 1.go kapitulua zerga zuzenak, orain bi miloi eta
ehun eta hirurogei mila dira eta igotzen da 2007.arekin konparatuta 4,87.

Zeharkako zergak, berdin mantentzen dira seirehun mila €
Tasak eta beste sarrerak 3,32 igotzen dira.

Transferentzi arruntak da gehien igotzen den konzeptua hemezortzi eta piko, batez ere FOFIM-a, Foru Aldunditik datorren dirulaguntza gehiago delako. Ondarezko sarrerak 4,63 igotzen dira. Horrek esan nahi du diru-sarrera arruntak batz-besteko bat egin da 11,82 igotzen direla.

Gero gastuetan edo barkatu diru-sarrerak kapitalezko sarreretan hor daude seigarren kapituloan Inbertsio errealen salmentak, horiek dira Hirigintzako aprobetxamenduak: Artadi, eta Ardantzabide, eta Puntanueta oker ez banago 845 mila € horiek lehengo urtean ez zeudenak eta horregatik dago hori hutsik 2007koa.

Zazpigarren kapituloan kapitalezko transferentziak jeitsi egin dira oker ez banago, Izartuko diru-laguntza dagoelako bakarrik eta lehengo urtean, diru-laguntza gehiago zeuden aurreikusita, alhondegia eta besteren bat.

Finantza aktiboak mantentzen dira berdin-berdin, zortzigarren kapituloa eta gero hemen diru-sarrera azkenengo kapituloan bederatzigarrenean Pasibo-finanziero bat, hor dago aurrekontu honek sortzen duen defizita bi miloi eta hamazazpi mila € Berez 90 mila € lehendik daude Udaletxeak ordaintzen dituen prestamo batzuk hor daudelako, horrela nahiz eta asko gutxitu diren eta gero, bueno, izango litzake horri 90 mila € kentzea.

Hori izango litzateke defizita beti ere hau dena gauzatzen bada eta hori badakigu, pentsatzen dut ez dela horrela izango. Gauzatzen bada eta dagoen remanentea ez bagenuke erabiliko.

Ez dakigu zer remanente egongo den lehengo urteko likidazioa egiten denean eta dakigunean, orduan ikusiko dugu zenbat erabiliko den edo ze portzentaia erabiliko den.

Gastuari dagokionez, lehenengo kapituloa Pertsonal gastua, nabarmen igo da % 23,13 eta kasu honetan aurrekontu hauetan garrantzi haundia dauka. Pertsonal gastua gero igual bigarren puntuan ere esplikatuko dugu hori, baina, hemen lanpostuen balorazioak eta gauza asko dihoaz, gero esplikatuko dut hobeto. Baita ere Lan-Hitzarmen konbenioak ezarri dira 5,3an eta horrek suposatzen du hogeita...

Berez, horrek bakarrik ez du suposatzen, baina esan dudan bezala gero esplikatuko dut.

Bigarren kapituloan, Gastu arruntan erosketetan, baita ere igoera nabarmena dauka hogeitazazpian interesak gutxitu egiten dira, prestamoak ere gutxiagoak direlako eta transferentzi arruntak ere % 61 igotzen dira. Horrek esan nahi du, Gastu arrunta igotzen dela % 30,80 batez ere, bat, 1.go kapitulan; 2.na; eta 4.na igotzen direlako.

Gero kapitalezko gastuetan, seigarrenean, Inbertsioa % 24 igotzen da, kapitalezko transferentziak gutxitu egiten dira, diru-laguntzak ere gutxiago daudelako eta lehen esan dudan bezala Finantza aktiboak mantetzen dira eta Finantza pasiboak bederatzigarren kapitulan daude lehen esan dudan

90 mila € horiek; Udaletxeak dauzkan maileguak dira, lehendik dauzkan maileguak. Horrek esan nahi du, Aurrezki Garbia, hau da, diru-sarrera arruntak ken gastu arruntak murriztu egiten dela, lehen bi miloi eta hirurehun zen eta orain geratzen da miloi eta 218 mila €. Aurrezki Garbia % 47an gutxitzen da. Dena dela oraindik kontsideratzen dugu egoera ekonomikoa oso ona dela.

Zorpetzea ere gutxitu egin da, prestamoak azken urteetan gutxitu egin direlako eta momentuz ez dugulako beste mailegurik eskatu. Eskatzen dugunean, eskatzen badugu, igoko da.

Hori alde batetik, gero hemen ikusiko dugu Inbertsioak,- hemen dago Inbertsioen eranskina-, ea ongi ikusten den, gutxi gora behera, aurrenengo zatia da, orain esan dudana, diru-sarrera arruntak eta gastu arruntak, ea hemen ikusten den, Aurrezki Garbia lehen esan dudana bezala 218 mila € izango litzatekeela, hori gehi orain esango dudana beste partida batzuk erabiltzen dira Inbertsioak egiteko, alde batetik lehen esan dudana seigarren kapitulua: Inbertsio errearen salmentak, hau da, Hirigintzako aprobetxamenduak, kasu honetan: Puntanueta, Artadi eta Ardantzabidekoak, hiru aprobetxamendu horiek erabili daitezke bakarrik Lur Erosketarako eta horretarako erabiltzen dira, gastuetan daude ipinita Lur Erosketa bezala.

Gero kapitalezko sarrerak daude, Izartuko diru-laguntza lehen esan dudana bezala, beste hainbat hobekuntza ikastetxeetan egingo liratekeenak eta prestamo kontsumorako maileguak. Hauek dira langileek erabiltzen dutenean edo eskatzen badute mailegua itzulpena, hau da, bueltatzen dutenean. Gastuetan eta diru-sarreretan berdina dago hemezortzi mila € lehengo urtetan bezala eta gero erabiliko litzateke baita ere defizita edo mailegua ba..... bi miloi horietan erabiltzen bada lehen esan dudana bezala, konzeptu hauek denak sumatzen dute, gehitzen dute lau mila hirurehun o sea, lau miloi eta lauhun € borobiltzen. Hori erabiliko litzateke Inbertsio guzti hauek egiteko. Hemen daudenak, ez dakit, hauek aspalditik dauden papeletan, baina bueno esango ditut zeintzu diren. Izango litzateke Administrazio orokorreko programan, bulego ekipoak sailetako datu eta ahotsen integrazioa, hau da, sarean sartzeko Udala, Foronda, Branka eta beste eraikuntzak; Pleno aretorako ekipamendua; Udal artxiborako kajak, karpetak baita ere, sistema orokorrak, bueno Administrazioko gauzak dira. Hauek, txikiak dira ikusten duzuenek, inbertsio hauek.

Gero daude Pake Epaitegirako ekipo berriak, Gizarte Zentruan komuna, San Juan Egoitzarako furgoneta, Komun Publiko bat, hainbat hobetze obra Hezkuntza eraikinetan, Ikastetxetan gehi aurre eskolan izan daitezkenak. Ondoren dator Hirigintzako programa, hor daude Lur Erosketak lehen esan dudana, lehen esan dudana 845 mila € horiek erabiltzen dira partida honetan, Lur Erosketarako, gehi beste 276 uste dut direla, egingo litzateke baita ere Narrondoratz lotura peatonala hirurehun mila € tan, hor daude 280 baino

gero behean, dago proiekturako beste 20 mila € baita ere egingo litzateke Jadarreko birgaitzerako beste 500 mila € aprobetxatzen dut esateko hemen erabiliko ditugula 2007ko aurrekontutik ejekutatu gabe dauden beste bostehun mila €Jadarrerako.

Sartu dugu, baita ere Basustabideko berreurbanizazioa ehun mila € Perkorako beste ehun eta hogeita mila € seinalizazio horizontalaren pintaketa hamabost mila €, gero presto programa Automap, eta hauek dira Hirigintzako teknikoak eskatu dituzten programa batzuk, ez! Hiru hauek, Zerbitzuetako programak dira, gero baita ere delineazioak, planoak egiteko momentuan eraikin publikoetan, hauek dira Hirigintzako Teknikoak esandakoak. Baita ere gero zubi mugikorraren proiektua ideia lehiaketa bezala sartu dugu eta bueno Narrondo eta Jadarrekoa lehen esan dudana bezala, hau proiektua da baina lehen gehitu ditut kopuru hauek,

Gero baita ere Inbertsioak argiteri Publikoan beste hogeitabost mila € Inbertsioak zuhaitzetan, berdegunetan, hainbat hobetze obra eraikin publikoetan.

Baita ere dago Ur Horniduraren programan eta hori uretan sartu dugu kutxatila iragazkaitzak egin “arquetas impermeables” usten dut dela, Oikiako ur-hornidura, Arritokietako bonbeoa eta Artadin, baita ere hornitu saneamendua eta gasa.

Gero ingurumenean sartu dugu lur erosketak, ez dakigu non izango diren 30 mila €gatik.

Beduako proiektua beste 60 mila €eta baita ere bidegorri sarrerako 90 mila €

Beste hau ez dakit, Brigadako material erosketak dira, baina bueno hori daude eta aipatzen ditut.

Baita ere beheko plaza ez dagoenez, plazaren ordeko azpiegitura beharrak beste 20 mila €sartzen ditugu.

Normalean sartzen diren gauzak liburuak, CD-ak, bideoak, baita ere aurrikusten dira.

Ubillosen inbertsioak elektrizitaterako 40 mila €

Surflarientzat lokala beste 200 mila €, Itzurungo hondartza inguruan izango dena.

Futbol zelaian, sare berria, zegoena puskatu egin delako.

Baita ere, ikurrinak gordetzeko bitrinak Itsalkiroldegian, Hondartzetan inbertsioak beste 40 mila €

Bide publikoetan beste hobekuntza batzuk.Baserri bideak garbitzea, baserri seinaleak.

Eta turismoan azkenik Beobide obrak hitzarmena, auto-karabanarentzat zerbitzua eta, beste bi edo hiru inbertsio txiki.

Kapitalezko transferentzietan, hau da, inbertsioak direnak baina, ez dira inbertsioak zuzenki. Diru-laguntza bat da, gauza konkretu batzuk egiteko ematen dena, hori dago, Izartukoa Zumaia Lantzena dihoan diru-kopuru

bat eta erabiliko dena ba Izartu planerako 332 mila € Gero beti bezala igogailua jartzeko programa eta fatxada pintatzeko programa. Parrokiaren hitarmena ere bazegoen lehendikan eta gero berrikuntzara moduan Udalaren ur-sarean hartune partikularrak baita ere diru-laguntza edukiko dute.

Inbertsioen eranskina hau izan da.

Gutxi gorabehera Udal aurrekontua hamar arlotan zatitu dugu, eta gauzak asko errepikatuko badira ere, garrantzitsuenak aipatuko ditut:

Lehenengoa udal zerbitzuak, hor kapituloka dago eta ez ditut aipatuko kapitulo guztiak, hemen konparatiba egin da 2007 eta 2008.

659 mila € igotzen da % 21,85 a. Gauza garrantzitsuenak esango ditut: adibidez, Zerbitzuetan asmoa daukagu udaltzain bat kontratatzeke, uztailetik aurrera izango litzateke. Baita ere udal plantila organikoan lanpostua sortuz sei hilabeterako. Baita ere berdin, berdin, Brigadako arduraduna baita ere izango litzateke uztailetik aurrera gutxi gorabehera sei hilabeterako. Bi hauek ere, noski, lanpostu berriak dira eta Pertsonal gastuak asko igotzen dira, ez bakarrik Lanpostuen Balorazioagatik, gauza hauengatik ere bai. Hemen Zerbitzu hauetan bi daude Udaltzaina eta Brigada arduraduna eta baita ere errefortzu bezala, hau lehen ere egiten da hamasei hilabeterako langileak kontratatuko dira. Hauek INEM-en diru-laguntza edukitzen dute, baina ez osoa eta baita ere kosto bat dauka.

Gero baita ere komun publiko bat egingo da, lehen esan dudana bezala, bueno argiteri publikoan inbertsioak eta baita ere zuhaitzetan eta berdegunetan, hauek lehen esan ditut, ez nihoa errepikatzera.

Gero, baita ere hondakinen kudeaketan, hor jartzen duen bezala, Hondakinen Kudeaketak ia % laurhuneko igoera eduki du eta denok dakigun bezala, hau Ordenantza Fiskaletan etbr.... eztabaidatu zen bere garaian. Zabortegiaren itxierak ekarri du dirulaguntza, oi barkatu, kostu haundiagoa eta guri Mankomunitatetik eskatzen zitzaigun kopuruak jarri ditugu eta 2007ko programarekin konparatuta ba igoera hori da.

Kale garbiketarako kontratuak ere ehuneko hamarreko igoera izan du. Pasatuko gara beste arlo batera Administraziora. Aurrekontu hauetan garrantzi handia dauka, ikusten duzuen bezala 2007tik 2008ra % 46ko igoera dauka.

Pertsonal gastuak, berak ia dauka % 45 a, programa honek, eta orain esplikatuko dut zergatik. Hasteko, Udal Gobernuen Liberatuen gastuak murriztu dira ia % 20 a; 19,80an; hor jartzen dudana bezala. Dena dela Pertsonal gastuak % 45 eko igoera eduki dute eta hor ematen ditut arrazoiak. Administraritzarako sei hilabeterako administrari bat kontratatuko da INEM-en dirulaguntzarekin. Lan Hitzarmen igoerak 2007arekin konparatuta 47,1eko igoera eduki dute eta baita ere egingo da Departamentuaren diagnostikoa berrantolaketa, Lanpostuen Balorazioa.

Lanpostu Balorazioa, Lanpostuaren kontura urtarrilaren batetik aurrera asmoa daukagu % 10 a ia igotzeko, gero ikusiko dugu Balorazio horrek zer esaten duen, baina pentsatzen dugu, inguru hortan edo agian gehixeago, izango dela.

Beste Web orri bat egiteko asmoa ere badugu.

Komunikazioetarako aholkularitza kontratatzeke asmoa ere bai.

Gero baita ere legealdirako, gelditzen diren hiru urteetarako Plan bat egingo dugu, dirulaguntzak daude Eusko Jaurlaritzaren aldetik % 75 a .

Gero baita ere hainbat Udal esparrutan parte hartzeko prozesuak jarriko dira.

Beste hauek lehen esan ditut, sailetako datu eta ahotsen integrazioa eta ez du merezi errepikatzea.

Azkenenegoa, baita ere Prozesu partehartzaileak jarriko dira hainbat esparruetarako eta baita ere aurrekontuetarako, zehazki, bi partida, jarri ditugu.

Hirigintzara pasatuko gara. Hirigintzak ere eduki du % ia hamaikako igoera orokorrean, Orain esango ditut aipagarrien diren partidak. Delineante bat kontratatuko da INEM-en dirulaguntzarekin sei hilabeterako. Etxebizitza hutsen azterketa egingo da edo espero dugu egitea. Baita ere jarrita daukagu mugikortasun eta irisgarritasun planak, eta espero dugu plan hauek egindakoan ia jakitea benetan zeintzuk izango diren herriaren beharrak.

Gero Hazienda batzordetan komentatu izan da eta azkenean lokal publikoak etxebizitza babestuetan egokitzeke azterketa egingo da. Lehen esan dudak Lur erosketak miloi eta berrehuengatik.

Narrondorantz lotura peatonala. Jadarrekoa lehen esan dut bostehun mila € eta beste bostehun mila likidazioa egiten denean.

Basustakoa ere aipatu dugu jarri dugula 100 mila € Zubi mugikorra ere bai, gero hau berez, hau ez dago aurrekontuan, baina baita ere konpromisoa hartzen dugu 2005-2015 Plan Bereziko eta Izartuko diru kopurua mantentzea, aurreko aurrekontuetan sartuta daudenak eta ez direnak ejekutatatu. Eta noski, lehen esan ditudan besteak.

Gizarte Zerbitzuetara pasatuko ginateke..

Gizarte Zerbitzuetan ere 886 mila €tik, miloi eta 200 era pasatu gara % 41,92ko igoera.

Lehen, Andonik esan duen bezala hemen ere Gizarte Langile bat kontratatzeke asmoa dago, baita ere, Plantila Organikoan lanpostua sortuz sei hilabeterako.

Etxez-etxeke laguntza zerbitzuaren kontratua ere pilo bat igo da, ez dut uste horrenbeste, ez dakit, zergatik dagoen hori, uste dut hor akats bat daukadala. 107 tik 167 ra igoera, o sea, hori ez dago ondo, baina igoera nabarmena eduki duela, bai.

San Juan Egoitzari ere dirulaguntza ematen diogu 147 mila €koa, behar duelako, han egon diren negoziazioak etbr... dirulaguntza eskatzen dutelako. Baita ere furgoneta bat erosiko dugu San Juan Egoitzarako. Gizarte Zentruan komuna, gero Emakumeen Eskubideen defentsarako 32 mila € jarri ditugu, azterketa bat egingo dugu eta Plan bat herrirako. Nazioarteko elkartasunerako, noski, 0,7 mantenduko dugu 97 mila €izango dira aurten.

Baita ere jarri dugu partida bat Presoen urrutiratzeak sortzen dituen galera ekonomikoentzako sei mila € takoa, eta bueno konzeptu hauetan Mankomunitateak eskatzen dituen partidak ere % 31 a igo dira, Gizarte Zerbitzuetako konzeptuetan nahi dut esan edo nahi dugu esan.

Hezkuntza pasatuko ginatke, hor ere igo dira, hor ere igo da nahi dut esan 2007arekin konparatuta, ez asko, % 4,35 eta hemen aipagarriak direnak, pare bat gauza: haurreskolako diru partida ez dugu sartu 2007ko likidaziotik pasatu dugulako, 150 mila € inguru zeuden eta horregatik ez dugu pasatu, eta gero baita ere Gaztetxolako kontratua. Hezkuntza eta Gaztedia jarri dugu igo da ehuneko baita ere asko, itxuraz zerbitzu berriak ere sartu ditugulako eta orduan igoera izan du horrek, diru kopuruan.

Kultura baita ere % 22 a igotzen da. Orokorrean, bataz bestekoa egin da, partida guztiak igotzen dira. Hemen jada hasita dago lanean Teknikari laguntzaile bat. Gutxi gorabehera 2008 rako izango da kontratatua. Uste dut urtarrilean hasi zela eta gutxi gorabehera urtebeterako, momentuz.

Gero baita ere lehen esan dudan bezala beheko plaza ordezkatzeko azpiegituretarako sartu dugu partida bat. Musika Patronatuari eta jaialdiari dirulaguntzak % 29 a igo dira. Festetako gastuak ere bai, bai gastuak eta bai dirulaguntzak, bata 15ean eta bestea 17an igotzen dira. Eta gero baita ere, hau aurrekontuetan ez dago baina konpromezua hartzen dugu likidazioagatik, Oskorrerako dagoen dirua ejekutatatu gabe pasatzeko aurrekontuetara likidazioa egiten denean eta daude 500 mila €

Kiroletara pasatuko gara. Kiroletan ere ia % 80 a igotzen da aurrekontua, bueno kirol ekitaldietarako gastuak, hor gastu asko daude eta aurrekontuetan daude zehaztuta, orokorrean % 23 a igotzen dira eta baita ere dirulaguntzak klubari ematen zaienak, orokorrean % 20 a. Lehen esan dudan bezala surflariak lokal bat edukiko dute Itzurun ondoan. Dirulaguntzak ere baita ere jarri behar izan dugu pilotarientzat, frontoia ez dagoelako eta beste herrietara joaten direlako pilotan jokatzeko eta bidaiantzako, etbr...

Futbol zelaian sarea. Ikurrinak gordetzeko bitrinak lehen esan dudan bezala eta baita ere hurrengo urterako konpromisoa hartzen dugu ze.. hau asmoa zegoen sartzeko baina bueno azkenean ezin izan dugu sartu, ba... Piraguantzako eta arraunentzako lokal bat erostea espero dugu 2009an izatea.

Euskara. Hitzari eta Baleikeri dirulaguntzak ia zazpi mila € igotzen dira. Bueno, lehenengo orokorrean esan % 10,45 igotzen dela Euskerako gastuak, euskarari buruzko dirulaguntzak ere zazpi mila eta bostehun igotzen dira. Kontseiluari ere bi mila € ematen zaio eta beka bat jartzen dugu hitanoari buruz, unitate didaktikoa sortzeko.

Ingurumenean, hemen igoera nabarmena dago % 159 a eta aipatuko ditugu gauza garrantzitsuenak. Hasteko kudeaketa kontratua Algorrikoa, 17 mila € tan igo da. Baita ere diru kopuru haundiago jartzen da tabernen kontrolerako. Gero sartu dugu azterketa bat Zumaiako Natur Ingurumeraren historiaren eta itsas-kulturari buruz. Hondakinak kudeatzeko eta udal heziketarako ingurumen planak ere sartu ditugu. Argiteriaren azterketa. Bidegorrirako lehen esan dudan bezala 90 mila € jartzen ditugu eta baita ere sartu dugu Beduako proiektua, Batzordetan askotan aipatu den bezala.

Azkenik Turismo. Turismo eta Merkataritzan % 17 ko igoera izan dugu baita ere. Teknikari laguntzaile bat kontratatuko da, bederatzi hilabeterako, honek ere Pertsonal gastuetan eragina dauka, noski, 41 igotzen delako.

Olarru egunerako partidak ere 10 mila € an igotzen ditugu. Baita ere egingo da Plan bat Merkataritzarako eta gero baita ere sartu gara Flysch ibilbidean, eta horrek ere bere partida dauka 20 mila € takoa Deba eta Mutrikurekin batera sartu gara. Eta baita ere lehen esan dudan bezala Auto-Karabanentzat zerbitzua jarriko dugu.

Ondoren, San Juan Egoitzako aurrekontua Ikusiko dugu pixka bat, konparaketa bat egiteko bakarrik. Aipatu, San Juan Egoitzako aurrekontuak % 44,25eko igoera izan duela, horregatik udal aurrekontutik dirulaguntza bat bideratu behar izan dugu, eta hor ikusten den bezala Pertsonal gastuak jeitsi egin dira, norbait jubilatuta edo egin zen eta horregatik jeitsi dira. Baina gero bigarren kapituluak, ba igoera nabarmena dauka % 64 a. Hor negoziatioak etbr.... egon dira eta hori behar baldin bada uste dut esplikatuta dagoela eta bueno diru sarreretan ere igoera nabarmena dauka. Noski, tasetan gutxi gorabehera KPI baina transferentzi arruntetan ba.... bai Foru Aldundiko dirulaguntzak eta esan dudan bezala udalarenak, igo egin direlako.

Baita ere ikusiko dugu pixka bat Musika Patronatoa. Musika Patronatuko aurrekontuak ere % ia 35eko igoera dauka eta bueno gutxi gorabehera, lehenengo bi kapitulo edo hobeto esanda biak eta lauak daukate eragina. Besteak ere portzentaia altuak dira baina bueno nola kopuruak txikiak diren ba.... bigarren kapitulua eta laugarrenak dira eragiten dutenak, hau da, % 34 hori sortzen dutenak gutxi gorabehera. Sarreretan ere igoera berdina dauka, transferentzi arruntetan udaleko aurrekontuetatik diru kopurua igo egin delako.

Bueno eta gutxi gorabehera hauxe daukat esateko beste gauza guztiak nik uste dut eztabaidatuta daudela.

Zumaia Lantzeneko aurrekontua da Zumaia Lantzenen onartu zenaren berdin berdina. Uste dut unanimitatearekin onartu zela eta ez da ezer aldatu. Eta ez daukat besterik esateko. Ez dakit, zeozer ahaztutzen zaidan baina bueno.

Ez dakit, merezi duen Pertsonalarena zer bait esplikatzea. Lehen esan dudan bezala, Pertsonaleko gastuak eragin handia daukatela aurrekontu hauetan eta baita bigarren kapituluak ere, baina bueno. Laburpen bat egin da, Pertsonaleko txostenean ikusten den bezala, Pertsonal funtzionarioak izan du % 17ko igoera. Hor kontutan hartu behar dira Plantila Organikoan sortu diren lanpostuak, hiru eta lanpostuen Balorazioa, bueno hobeto esan da 17,1eko igoera da horregatik. Gero ikusten dugu, Pertsonal Laboralak jeitsiera izan du % 18 a, hori da etxez-etxeke laguntzako norbait ere, uste dut jubilatuta egin delako. Gero Pertsonal Laboralean, Laboral ebentual esaten denetan, fijoak ez direnak, baita ere igoera eduki dute. Hemen sartzen dira baita ere, lehen aipatu dudan INEM-ekin dirulaguntza daukaten batzuk, eta kulturako teknikari laguntzailea eta Turismokoa.

Gero Organu zuzendaritza, Gobernu Zuzendaritzan edo liberatuen soldatak hobeto esan da, lehen esan dudan bezala % ia 20 a jeitsi dira. Lehen esan dudan bezala Lan Hitzarmenak 47,1 igotzen dira aurreikusi delako 5,3 a kasurik okerrena gero ez dakigu zenbat izango den, baina bueno momentuz aurreikusi 5,3.

Gero partida txiki batzuk daude, seguroak eta formakuntzarako etbr.... eta hemen dago Lanpostuen Balorazioa. Hobeto esan da, Lanpostuen Balorazioak, Balorazioaren antizipoa izango litzatekeenak urtarrilaren batetik aurrera eta da % 10 a gutxi gora behera; gutxi gorabehera kendu ezkerreko liberatuak ba.. beste guztien % 10 a suposatzen du Lanpostuen Balorazioak, eta hori da gutxi gorabehera. Honek suposatzen du Pertsonalaren gastuan % 23, 1 eko igoera. Hau izango litzateke gure proposamena, orain Iñakik.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Bai, nik bakarrik adierazi prozedura zein izan den. Gogoratzeagatik pixkabat, aurrekontu hauek urrian egiten hasi ziren eta urritik aurrera, bueno alde batetik nahiko aurrekontu partehartzaileak nahi genitun izatea, eta zentzu horretan eta iritsi berriak ginenez eta denbora edo asti gehiegi ez genuenez, bai Gizarte Zerbitzuetako edo Gizarte arloan dabilzan taldeei, kultur arloan dabilzaneiei, kirol arloan dabilzaneiei, etbr... eskutitz bat idatzi zitzaientzen, batzordean dagoeneko aipatu zen eskutitza, hilabete bateko plazoa emanaz, beraien aportazioak egin zitzaientzen aurrekontuei.

Horren ondoren auzoko ordezkariekin ere hainbat bilera izan ziren beraien aportazioak egiteko, Jadarre, Narrondo, Oikia, San Migel eta Estazioko jendearrekin, haiekin ere hainbat bilera egin ondoren, beraien aportazioak ere egin zituzten eta horrela abenduaren 28rako aurrekontu batzuk lantzeko aukera izan genuen eta horrela abenduaren 28an aurkeztu ziren Hazienda edo Ogasuneko batzorde batean.

Honen ondoren, Ogasuneko batzordea izan ondoren, eta aurrekontua aurkeztu ondoren beste hilabete bateko plazoa ireki zen alderdi politiko guztientzat, eta astero egin ziren Ogasun batzordeak alderdi politiko bakoitzak beren aportazioak egin zituzten.

Hilabete horretan, aurrekontuak moldatzen joan ziren eta otsailean berriz ere beste Ogasun batzorde batean, plazo bat ireki zen, astebetekoa, plazo formal bat, bakoitzak egin zitzan, nahi zituen emendakinak. Zentzu horretan Ezker Batua-Aralarren aldetik, proposamen batzuk jaso ziren eta Eusko Alderdi Jeltzailearen partetik emendakin batzuk ere jaso ziren, dagoeneko batzordean ikusi direnak. Alderdi Sozialistak ez zuen emendakin edo proposamenik aurkeztu. Zatikako proposamenak izan ziren. Era horretan, Gobernuaren aldetik egin ziren proposamen guztiak aztertu ondoren proposamen batzuk onartuak izan ziren; bai Ezker Batua-Aralarrek egin zituen proposamen batzuren inguruan bai eta Eusko Alderdi Jeltzaleak egin zituen beste proposamen batzuren inguruan ere, eta zentzu horretan bai alde batetik herritarrekin hitzegin ondoren eta bestetik alderdi politiko guztiekin hitzegin ondoren egin diren aportazio eta moldaketa guzti horiekin, saiatu gara gutxienez aurrekontu hauek, ahal den eta partehartzaileenak izaten, bi zentzutan: herritarren aldetik eta bestetik alderdi politikoaren aldetik. Eta iruditzen zaigu gutxienez, badela aurrekontu bat jende guztien edo alde guztien nolabaiteko espiritua jasotzen duen aurrekontu bat. Neurri horretan iruditzen zaigu Gobernuaren aldetik egiten dugun balorazioa ona dela eta espero dezagun datorren urterako denbora gehiagorekin eta asti gehiagorekin partehartze hori gehitzea eta denok parte izatea aurrekontu horietan.

Gure aldetik besterik gabe, alderdi politiko bakoitzak duzuen eritziari pauso emango diot, PNV.

M.EUGENIA ARRIZABALAGA ANDREA: Arratsaldeon. Oraintxe eman duzu aurrekontu hauek egituratzeko jarraitu omen duzuen prozedurari buruzko nondik norakoa.

Alde batetik, urrian presupuestoak lantzen hastea da normala, mundu guztia, beranduenez jota ere, urrian hasten bait da. Normala ez dena da, aurrenengo zirriborroa abenduaren 29an aurkeztea, 28an alegia, Inoxente egunean, ostirala zen gainera. Hain normala izaten ez dena ere da,

aurrenengo ziriborroaren ondoren beste... ez dakit..., ia kontua galduta daukat, bost edo sei ziriborro desberdin aurkeztu izana.

Aurrena esaten duzue nahi izan zenutela prozedura ahal zen zabal eta irekiena egin, eta hori Partaidetza Batzorde batetan horrela komentatu zen. Ikusi genuen baita zenbat herritar mugitzen dituen prozedurak benetan aurrekontu partehartzaileak aurrera eramateko. Gero ia denborarik ez zeneukatela eta, berriak zintzen aitzakiarekin, bertan behera utzi zen asmo hura. Esan zenuten eskutitzak bidali zenituztela. Guk, ikusita hainbesterainoko partaidetza eta transparentzia aldarriak egiten dituzuela, eskatu genizuen oposizioko alderdiak garenon aldetik, taldeak edo herritarrek adierazitako iradokizunen berri ere guri emateko. Ez zaigu horrelakorik etorri. Beraz ez dakigu zuek esaten dituzuen horiek non dauden islatuta aurkezten duzuen berradore honetan. Esan dudana bezala lehenengoaren geroztik bost edo sei berradore desberdin izan ditugu eskuarteetan eta nahiko kostatu zaigu hauen pista eta nondik norakoa jarraitzea. Hainbeste kostatu zaigu, idatziz (orain dela pare bat hilabete izango da), sartu genizuela eskaera xume bat, esanaz, mesedez, berradore bat aurkezteko, non, gutxienez, sarrerak eta gastuak kuadratzen zuten. Zeren hori bai dela, edozein aurrekontu oinarritzko duen ezaugarria, ezta? Hala ere, bai, egia da, aportazioak egiteko eskaintza zabaldu diguzuela eta idatziz emendakinak aurkezteko epea eman zeniguzuela. Buruz ez dakizkidan egun batzuetan aurkeztu genizuen sei emendakin. Eta orain esaten duzue Ezker Batua-Aralarrek ere aurkeztu zituela beraienak. Baina hurrengo Hazienda batzordean, hau da, epea bukatu eta hurrengo egunean egin zenuten edo deitu zenuten Hazienda Batzordean, gureak bakarrik mahai gaineratu zenituzten eta gainera, beste alderdiek, hau da, beste gainontzeko oposizioko alderdiak ezagutzen ez zituztelarik, emendakin horiek botatzeko asmotan zineten. Bueno pentsatzen dut akats bat izan zela edo bapatekotasunez gertatutakoa, azken finean, gero egon ginen zuekin. Eusko Alderdi Jeltzaleak bai EA-ri eta bai ANV-ri egiten zion negoziaketa baten inguruko proposamenak ziren aurkeztutako sei emendakinak eta deitu gintuzuen eta adierazi, begiratuta gero, zein zen zuen erantzuna. Gero, era nahiko xeble batetan, erantzun horren berri eman duzue komunikabideetan, non azaltzen duzuen zuen esperantza aurrekontuak aprobaturiko dituzuen, eta Ezker Batuak hainbeste emendakin sartu omen ditu, hainbeste onartu dizkiozue eta Eusko Alderdi Jeltzaleak, berriz, sei. Eta ziozutenez, seitik hiru guztiz onartu dituzue, bat zati batetan eta beste bi... nolabaiteko txosten edo azterketen ondorenen zain geratuko lirateke.

Egindako azterketaren inguruan, eskuarteetan daukagun berradore honen azterketaren inguruan, zenbait kontsiderazio:

1. Aurrena, Eusko Alderdi Jeltzalea gobernuan egon zenean ontzat eman, tramitatu eta abian jarri ziren hainbat eta hainbat proiektu ditu barnean, Zumaia Lantzen Elkarte Publikoaren Ekimen Asmoaren barruan.

Hain zuzen, Torreberri, E.Gurrutxaga eta Zuloaga plazen eraberritzea, lur-azpiko aparkalekuak, Odietako eraberritzea, Axularreko oinezkoentzat zubia eta, nola ez, Puntanuetako II. faseko etxe publikoen eraikuntza. Guzti horiek, orain, lehen bezala, funtsezkoak iruditzen zaizkigu Zumaiarentzat eta horregatik, nola ez, eman genien aldeko botoa Elkarte Publikoaren Ekintza Plana onartu zenean. Josebak ondo esan duen bezala, aho batez onartu zena, bestalde. Beraz hori dagoeneko onartua dago.

2.go kontsiderazioa: Alderantziz, Udalak berea propioa duen aurrekontuan, jasotzen dituen inbertsioak erabat hotz utzi gaituzte. Josebak aipatu dituen inbertsio zerrenda luze horretaz ari gara. Aurrekontu honek, Udalarenak, ez dakar proiektu berri bat bera ere, berritzailea izan daitekeen proiektu bakarra edo guk behintzat horrela topatu dugun proiektu bakarra, da, hain zuzen, Zumaiatik Narrondora dihoan oinezkoentzat bidea. Beharrezkoa iruditzen zaigu eta guk, gure udal hauteskundetako programan ere, jartzen genuen proiektu bat zen.

Harritzen gaituena da 300 mila €ekin proiektua barne, hori behar bezala egitea izango ote den, ba... bidegorria eta oinezkoentzat izan behar duen bide batek behar duen zabalerarekin, behar duen luzearekin, behar duen kalitatearekin, behar duen argiteriarekin, etbr.

Bestalde inbertsio zerrendetan aipagarriena da Jadarreko birgaitzerako jartzen diren 422 mila € Egia da iaz, 2007 aurrekontuetan, - ez naiz akordatzen buruz, baina zuk aipatu duzu Joseba-, 500 mila uste dut daudela onartuta. Eta aipatu duzunez, nola ez den ejekutatu, 2007ko aurrekontuaren likidazioarekin batera txertatuko duzue partida hori 2008koan. Ezin bestekoan. Eta gu nola ados ez gendeuke horrekin, ezta? Baina azken finean ez genuen bakarrik 2007ko aurrekontuan onartu, 2007rako ziren 500 mila € horiek, baita onartu genuen 2008. urterako, nola da... "credito de compromiso" bat, beste lauhun... eta beste 800 mila €akoa. Beraz 2008an, Jadarreko partidan, guk onartuta bezala 380 mila € gehiago egongo lirateke.

Eta hor bukatzen dira inbertsio aipagarriak, eta gainontzekoena partida txiki zerrenda luze bat da. Eta ia.. pixka bat, ez dakit..., detailera joaz harritu gaitu adibidez, (baita aipatu duzu) Oikiako ur-horniduraren arazoak konpontzeko agertzen diren 14.700 € Adibide txiki bat, eh?

3.go kontsiderazioa. 2007ko aurrekontuarekin egiten duzuen konparatiban, inbertsioak ehuneko 24an igotzen dira, eta nola da posible? Gure ustez, nabarmena da nola den posible. Leku aldaketa bat erabiliaz. Iaz Zumaia Lantzen Udal Elkarte Publikoan zeuden, miloi bat € inguru, lur-zoru publikoaren poltsarako. Hau da egunen batetan, etorkizunean, etxebizitza publikoak egin ahal izateko lurra erosteko poltsa horretan. Aurten lurra erosteko partida hori aldatu egiten da lekuz, Zumaia

Lantzenetik pasatzen da Udalak berarena duen aurrekontura, eta partida hori bihurtzen da 1.121 mila €takoa. Beraz galdera da Udalak 2007an baino diru gehiago dauka 2008an lur-zoru publikoa erosteko? Ba... erantzuna sinplea, EZ. Baina, aipatutako partida hori iaz zegoen lekuan geratu balitz, Udal kontuetan errealitatea azalduko zen: hau da 2008an 2007an baino %14 inguru gutxiago dagoela inbertsioetarako. Eta, hori horrela izanda, berriro diot, lekuz aldatu bai, partida agertu bai, baina Udal honek ez dauka iaz baino diru gehiago lur-zoru publikoa erosteko.

4.go kontsiderazioa. Nabarmen igotzen dena eta denok ikusi dugu Josebak egin digun azalpenean, da: gastu arrunta. Gastu arrunta igotzen da kapitulu eta leku guztietan, orokorrean % 31ko igoera. Honen barruan, Aurrenengo Kapituluak %23 “y pico” igo da (421.000 euro gehiago), Jarduera Gastuak %27-a (1.000.000 bat euro gehiago) eta Transferentzi Arruntak %61ean igotzen dira.

Bale, gastuak argi dago igo egiten direla asko, baina sarrerak hainbeste igotzen dira? Ba..., ez. Sarrerak ez dira neurri berdinean igotzen eta sarrerak batuz bestean bakarrik igotzen dira % 11,8. Beraz gastuak % 31 eta sarrerak % 11. Eta horrek zer esan nahi du? Ba.... hitz potoloetan esanda gastuak inbertsioari kentzen diola 2008ko aurrekontu honetan zatia.

Azken finean, Udalak zorra egin beharko duela etorkizunean gastu gehiago eta inbertsio gutxiago egin ahal izateko. Eta “gastu”, eta “inbertsio”, eta “zorpetze maila”..., eta horrelako hitzak herritarrei, akaso, arrotzak eta itsusiak egiten zaizkien hitzak dira. Baina Zumaiaren etorkizuna baldintzatzen dutenak, zalantzarik gabe.

Gainera, sarreren analisi txiki baten ondoren, beste kontu bat da begibistakoa eta nahiko kezagarria iruditzen zaiguna: Udalak bereak dituen diru-sarrera iturriak %4ean besterik ez dira igotzen. Kontutan hartzen badugu oraintxen entzun dugula langileen soldata akaso % 5,5ean igo beharko dela KPI-aren igoera nabarmena kontuan hartuz, ba bueno... atera dezagun kontua... Sarrerak propioak ez, Udalak kobratzen dituen tasak eta zergak % 4ean igotzen dira. Eta orokorrean sarrera guztien igoeraren % 11a. Hori mantentzen duena da, Foru Aldundiak FOFIM-aren bitartez, udalari pasatzen dion diru kopuru hori. Dagoen bitartean bonbon, eta ez dagoenean, egon. Azken finean, Foru Aldundiak udalei ematen die tokatzen zaiena urtean zergen bitartez jasotzen duenaren arabera. Ekonomia ondo dihoanean, eta zorionez -eta hori aitortu beharra daukagu-, azken aspaldi honetan ondo joan zaigu, igoera hori urtetik urtera igotzen joaten da, baina ekonomia gaizki joaten hasten baldin bada, ikusiko duzue nola momentu batetik bestera FOFIM-ak eta horrekin datozen gauza guztiak nabarmen beherantz joko dutela eta hori gertatzen denean eta diotenez, eta ojala ez dadila gertatu, diotenez, ekonomiaren etorkizuna datozen urteetan nonbait ez da oparoa, ba FOFIM-a jeitsi egingo da. Udalak bere sarrera

propioak bermatzeko ahalmena murriztuta ikusiko du ez ordea gastatzeko ahalmena.

5.go kontsiderazioa. Gastuak gora egiten dute, inbertsio efektiboak behera, sarrera nahiko ez nonbait, zertara garamatza horrek ba?... Mailegua eskatu behar izatera, eta sarrera koadratzeko 2007, oi, 8. aurrekontuetan 2 mila €tako mailegua. 2 miloi, barkatu. 2 milioi €tako mailegua aurkezten zaigu.

2 milioi €tako mailegua % 30eko igoera duen gastua aguantatzeko. Zumaiako Udalak azken urteetan Gipuzkoako artean ekonomia osasuntsua izan du eta Udal inbertitzailea izan da. Eta ekimen inbertitzaile hori herriaren onerako izan denez zuzenean, herriak antzeman du. Orain berriz, bapatean, egoera hori irauliko ote den tankera guztia hartzen diogu aurkezten zaizkigun kontu publiko hauekin.

Eta horiek dira, orokorrean Aurrekontu honi ikusten dizkiogun akatsak, gure ustezko akatsak.

Aurrekontua konpondu nahian ba... sei zuzenketa aurkeztu genituen, eta lehenago komentatu dudan bezala egunkarietan irakurri genuenez horietatik hiru “guztiz onartu zaizkigu”, bat “zatika”, eta beste biak balizko azterketen ondorioen baloraziorako uzten dira. Dena den guk aurkeztutako emendakinen erantzunaren inguruan egiten dugun analisiak, hola dio:

Aurrenengo ZUZENKETA:

- Guk daukagun inpresioa da, (seguru ezetz esango didazuela, baina bueno geure inpresioa da) Eusko Alderdi Jeltzalearengatik ez balitz izan Zumaiako Udaleko aurrekontuak ez zuela euro bakar bat ere izango etorkizuneko etxe babestuak egin ahal izateko lur publikoa erosten jarraitzeko. Eusko Alderdi Jeltzaleak aipamen hori egin ondoren agertu bait zen seigarren, edo bostgarren... edo zazpigarren... zirriborroan partida hori.

Hala ere, miloi bat euro bazeuden iaz. Lehen esan bezala, aurten ere miloi bat euro jartzen da. Eta hori, alde batetik, gure aurrenengo Zuzenketari Ezezkoa ematea da (guk miloi eta bederatzirehun mila euro eskatzen baigenituen) eta bestetik, Legeari berari iruzurra egitea. Eta zergatik? ba...legeak esaten duenez, eta Josebak aipatu dituen 850 mila € horiek horretan dira, jarduera urbanistikotik jasotzen den % 10 aren zesio hori zuzen-zuzenean lurra erostera bideratu behar delako eta ez beste ezertara.

2008an aurreikusten baldin badira 850 mila € ba.. gutxienez horiek lurra erosteko izan beharko lukete. Baina klaro, jartzen badira 2008ari dagozkionak eta kentzen baldin badira 2007an zeudenak, batak bestea jaten du eta azkenean horren ondorioa da berdin gaudela, eta poltsa haunditzen

joan beharrean urtetik urtera eta zesio horiek gehitzen joan beharrean, ba... gelditzen garela punto neutro batetan, ezta?

Bigarrenengo ZUZENKETA edo EMENDAKINA:

- Bueno gure ustez, hau ere berriz diot, gure ustez, udal-gobernu-kideen begiak zabaltzeko balio izan du eta pozten gara horregatik. Edo behintzat hala espero dugu, eta Josebak aipatu duenez, lehenago pantailan agertu duenaren arabera, hala ematen du. Zer eskatzen genuen 2. zuzenketa honetan?

Odieta-Beheko Plazarako eta “Zumaia 2005-2015” izeneko ekimenerako aurreko urteetatik onartuak zeuden partidak, horretarakotxe eta ez beste ezertarako mantentzeko eskatzen genuen. Gutxi gorabehera ari ginen bi miloi bostehun mila euro ingurutaz. Eta azkenean baietza adierazi diguzue, eta horrek lasaitu egiten gaitu. Ze... bestela, ba... gure galdera zen nola pentsatzen zenuten, adibidez, lur-azpiko parkin berriaren obrekin hastea? Beraz, bai, hau ontzat eman da, eta ontzat eman da arrazoiaren ezinbestean.

Hirugarrenengo ZUZENKETA:

- Hirugarren zuzenketa inguruan berriz: hemen eskatzen genuen Basusta-bideko auzunea erabat eraberritzeko seirehun mila euro 2007an jartzea eta beste hainbeste € beste seirehun mila euro, 2008an. Barkatu, 2008an eta 2009an jartzea. Eta hau da nonbait periodikoetan agertu den “erdizka” onartu diguzuen zuzenketa. Guk miloia eta 200 mila € eskatzen genuen lekuan 100 mila euroekin konponduko omen zarete. Gure ustetan gure eskaerari ezezkoa ematea da erantzun hori. Azken finean Odietako auzoak eta Jadarreko auzoak merezi eta behar dutena, beste hainbeste beharko luke eta merezi ere, Egurko inguruko auzune harek. Hauteskunde kanpainan agindu genien konponduko genuela hango egoera. Alkatetza ez da gurea eta beraz ez zaigu guri egokitzen baiezkoaren edo ezezkoaren erantzuna, baina bueno, gure asmoa da ideia horrekin edo asmo horrekin jarraitzea.

Ehun mila € rekin egia da zerbait egin daitekeela eta gauzak txukundu daitezkeela, baina desde luego ez guk uste dugun haina.

Laugarrengo ZUZENKETA:

- Hau zen irisgarritasun eta mugikortasunaren inguruan eta proposatzen geneuna ziren 750 mila € Jadarren aparkalekua, San Jose kalean ere beste aparkaleku bat, eta Ardantzabidetik Larretxora igogailua, non egin, nola egin aztertu eta proiektuak egin, eta obren hasiera gutxienez edo ematen zuen arte, egiteko. Bueno.. hau aurreko azterketa baten beharretan omen dagoen zuzenketa horietako bat omen da eta hala adierazi diguzue . Gure ustetan hiru proiektuek onura zuzenak ekarriko lizkiokete herriari. Eta “Mugikortasun eta irisgarritasun” planak egiteko 54.000 eurotako partida bat aurrekontuetan dagoela esateak, ez digu ezer gehitzen. Beraz, guretzat emendakin honen erantzuna ezezkoa da eta gainera akordarazten dizuet planak egitea ondo dago. Diru asko kostatzen dira, denbora piloa eramaten dute, baina plan asko egiteko asmoa duzuela antza, ematen du, (emakumearen inguruan, merkataritzan, etxebizitzan,

agintaldirako plana, irisgarritasun plana, mugikortasun plana eta beste plan bat edo beste ahaztu zaidana). Dagoeneko energia asko, diru asko ez ezik beharko duzue, denbora ere bai larregi... eta gero planak bere horretan geratzen badira ez dira batere interesanteak izaten, eta plan guzti horietatik ondorioztatutakoari erantzun beharra izango duzue datozen pare bat urteetan...

Hala ere, eta begirada bat eman nahi baldin badiozue Mugikortasun plan bat behintzat badago, orain dela pare bat urte eginakoa eta ez dut uste kadukatu denik. Bueno, beraz, ezezkoa laugarrenko zuzenketari.

Bostgarrenko ZUZENKETA, berriz:

- Erkibe etxea ekipamendu publiko izan dadin lehendik aprobatutako miloia eta zortzirehun mila euro erosketarako bideratzea eskatzen genizuen. Hau ere ontzat eman duzue eta ondo iruditzen zaigu, ez dakiguna da azkenean, guk eskatuta, eskatzeagatik, ontzat eman duzuen, edo Odietako fitxa aldaketarena gehiago ez atzeratzea erabaki duzuelako izan den. Ontzat eman duzue aurretik aprobatuta dauden diruak horretarako mantentzea, eta arauak agintzen duena egitea.

Beste era batetara esanda, ea zer onartu diguzuen: Eusko Alderdi Jeltzaleak aprobatutako aurrekontuetan “gordeta” daukazuten diruak, Erkibe etxea izaera publikoko eraikin bihurtzeko erabiltzea, Zumaiako Arauak eskatzen duten bezala, Odietako berritzea gehiago atzeratu gabe eta lurrazpiko aparkalekuarentzat sarrera egiteko beharrezkoak diren metroak eskuratuz.

Eta bueno, honen inguruan ez genuke nahi ahaztea, gure ustez ez bakarrik diruak Erkibe erosi edo geureganatzeko, baizik eta guretzako Zumaiak behar duen haurreskola, eta orain Arrangoleta plazan egiten ari zireten behin behinekoa den soluzioari, baina behin betiko soluzioaren bila omen zabilzate horrentzako, ba... benetan, izan zitekeen leku ikaragarri ona horretarako.

Seigarrenko ZUZENKETA:

- Itsaskiroldegia konpontzeko 250 mila euro eskatzen genituen eta gure ustez honi ere ezezkoa eman diozue. Egunen batetan lokal bat erosteko asmoa omen duzue eta hor ikusi dugunez 2008ko aurrekontuetan kabitzen ez, eta 2009ko aurrekontuetan sartuko dezuaren konpromisoa hartzen duzue. Baina bueno, azken finean, gure emendakinari ezezkoa da.

Eta hauek dira aztertu ditugun arrazoi guztiak. Ez dakit baina... hala ere nahiko arrazoi iruditzen zaizkigunak aurkezten duzuen aurrekontuari gure ezezko botua emateko.

Eta gero jardun dut web-orrian zintzilik dauden garai bateko gaur bezalako Plenoetako aktak irakurtzen eta bueno... maltzurkeria pittin batez, behin eta berriz osotasunezko emendakina aurkezten zuen Ezker Abertzaleak. Zuk zeuk Andoni, Izustarriren izenean edo Josebak, eta aurretik beste batzuek... eta bueno, beste arrazoien artean bat izaten zen nabarmena, sutan jartzen zizuen, azpikontratazioen salaketa zen. Eta bueno, ba... borradorea ikusi dugu, partida guztiak erreparasatu ditugu eta hor topatu ditugu: udal eraikuntzen garbiketarako azpikontratazioa, defentsa juridikorako azpikontratazioa, lorazaintzakoa, hilerrikoa, gaztelekuarena, kale-garbiketarena, informatika mantenua, komunikaziorako aholkularitza, etxez-etxeko laguntza, ludoteka, arkitekto aholkularia, zabor bilketa, Algorri, Aita Mari kiroldedia.... etbr.

Alegia ez zaigu iruditu bat bera falta denik ere. Alderantziz gaur bertan enteratu gara, Boletinetik enteratu ere, beste lehiaketa publiko bat jarri duzuela abian, agian Josebak aipatu duena San Juan Egoitzako kontrata berria kontratatzeko ehuneko ez dakit zenbateko igoera nabarmen batekin. Boletinean enteratu gara. Berriz ere diot: Udal Gobernuaren transparentziaren adibide. Legealdi honetan eskatu genizuen, eta zuek horrela ontzat eman eta konpromezua hartu zenuten, San Juan Egoitzako Juntan alderdi guztiak ordezkari izateko aukera izango genuela. Zuek lehen eskatzen zenuten bezala. Eskatzen zenutenean eskatzen zenuten, ematerako orduan, nonbait, motzago zabilzate. Azken finean ez da bilera askotara edo gehiagotara joateko irrikitan gaudela, baizik eta tristea iruditzen zaigula horrelako lehiaketa publiko baten berri, hainbesterainoko garrantzia duen lehiaketa publiko baten berri, boletinean jakin behar izatea. Eta ez bakarrik hori, baizik eta ez dakigula nola joan diren negoziaketak eta zer suposatzen digun igoera horrek. Alegia, zerbitzuak hobetzen diren, zabaltzen diren, edo besterik gabe kostoa igo den. Eta bueno horiek dira gure arrazoiak.

SR. PALOMA HEREDERO NEGREDO: Hola, buenas tardes. Buenas tardes a todos y a todas. En primer lugar quiero agradecer a mi compañero Emiliano Cabañas, portavoz del grupo municipal Socialista que me permita tomar la palabra en nombre de nuestro grupo para defender este punto del orden del día correspondiente al Pleno extraordinario de hoy.

Nosotros hoy no queremos hacer, no queremos entrar en datos económicos en el presupuesto que se nos presenta y evidentemente desde el punto de vista económico, no nos faltarían razones para decir nó y rechazar estos presupuestos.

Creemos que estos son unos presupuestos virtuales. Si entramos a analizar detenidamente partida por partida vemos que son prácticamente inviables a todas luces imposibles de realizar. Solamente como dato puedo decir que

aumentar el gasto corriente sin aumentar los ingresos es ir directamente al deficit. Que el gasto del Personal es un 23,13%; el gasto corriente un 27,67% lo que representa cerca del 60% del presupuesto, esto es, realmente sin inversiones imposible, es inviable, no se puede realizar. Repetimos son unos presupuestos virtuales, pero de todos modos nosotros queremos aquí hacer una argumentación política, es por esto que vamos a decir lo siguiente:

Es muy probable que la pregunta que vaya a formular a continuación pueda parecer extraña a priori, pero os puedo asegurar que esta directamente entrocada con el primer punto del orden del día presupuestos.

En primer lugar necesitaba preguntar a Andoni Etxaniz, portavoz de ANV, si condenaba los atentados de la banda terrorista y sobre todo si condenaba el último asesinato de Isaias Carrasco a manos de la misma banda terrorista. Pues al no verle ni a él, ni a ninguno de los componentes de su organización política en la concentración de condena que tuvo lugar el pasado día siete de marzo a la puerta del Ayuntamiento, ni posteriormente en la concentración que tuvo lugar a las ocho de la tarde en el magnolio, podemos entender que efectivamente no condenan tan exacerbables actos. No obstante y para no poner el riesgo de equivocarnos PSOE iba a preguntar aquí, ahora a viva voz, directamente en el salón de Plenos.

Una vez dicho esto, paso a argumentar nuestro oposicionamiento político para los presupuestos.

En el mandato anterior, este grupo municipal nunca aprobó los presupuestos que presentaba el gobierno municipal anterior. En aquel entonces compuesto por PNV y EA. Porque consideraba que si bien a veces nos parecía más acertados que otras, nunca fueron los nuestros. Y así lo dije cada vez que los presupuestos se presentaban, a sabiendas de que nuestro posicionamiento político no significaba que en ningún momento se paralizaran ninguno de aquellos proyectos que con antelación nosotros habíamos aprobado, para el desarrollo, beneficio de los vecinos y vecinas de Zumaia, a los que representamos. Nunca repito, nunca, los aprobamos porque existían diferencias políticas y al no ser nuestros y no eran nuestros presupuestos aquellos que nosotros hubiesemos hecho si hubiesemos estado gobernando.

Bien en esta ocasión, no sólo no son, nuestros presupuestos, sino que nos encontramos ante la deleznable situación de tener que tratar acerca de presupuestos que nos presenta un grupo político que no condena los asesinatos de una banda terrorista. Yo no estaría diciendo esto, sino estuviéramos plenamente convencidos de que la prioridad de todos aquellos vecinos y vecinas de este municipio a los cuales representamos con orgullo, su prioridad es la conquista del derecho a la libertad de los demócratas. No deja de sorprender que ahora en el siglo XXI y en una

sociedad tan avanzada porque no decirlo, como es la Sociedad Vasca, se tenga que estar luchando por la conquista del derecho a la libertad de los demócratas, por lo tanto, entendemos que no debemos aceptar aquellas propuestas que vayan en contra de la voluntad de aquellos a los que representamos.

Dicho esto el Grupo Municipal Socialista del ayuntamiento de Zumaia invita al resto de los grupos políticos que conforman la Corporación a votar en contra de los presupuestos presentados por una organización política que se niega a condenar los asesinatos y demás actos terroristas a manos de ETA. Somos conscientes de que en política todo es justificable, se puede decir que bueno! Es por el bien del pueblo! Esto no tiene nada que ver, nosotros consideramos que es de todo punto inaceptable, que ni siquiera tengamos que plantearnos la posibilidad de abstenernos, creemos que hay que rechazarlos de plano, hay que escenificar que estamos convencidos de que ésta no es la vía para conseguir los fines que ellos dicen perseguir. Me estaría haciendo trampas en el solitario sino dijera que somos conscientes de las repercusiones que estas manifestaciones pueden llegar a tener en nuestra persona, pero muchos de los que estáis hoy aquí, ya me habeis oído decir en otras ocasiones que considero que en esta vida existe una línea no escrita que nunca se debe transgredir, si esto lo hicieramos ahora en esta ocasión, nos estaríamos perdiendo el respeto a nosotros mismos y a todos los que representamos, por lo tanto, el grupo municipal socialista vota en contra.

